



POLIZIA BULEGOETAN INSTALATUTAKO TELEBISTA-ZIRKUITU ITXIKO (CCTV) SISTEMAKO SEGURTASUN KAMERA BATEN GRABAZIOAK LAGATZEARI BURUZKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2014ko otsailaren 7an idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkia goian adierazitako gaiari buruzkoa zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkiaren bidez Agentziari jakinarazi zioten udaltzaingoaren iragarki-oholean dokumentu anonimo bat argitaratu zutela eta bertan idatzitakoa diziplinazko hutsegite bat izan daitekeenez, aurretiazko informazioak egingo direla. Iragarki-oholak udaltzainen sarbide libreko gela komun batean (atseden tokia) daude ipinita, eta bertan sartzeko atea polizia-erakinean instalatutako barruko bideo zaintza sistemako bideo kameretako baten ikus-eremuan dago.

Kamera horretatik gelan sartu eta irteten diren pertsonak ikusten dira, baina ez da ikusten atseden tokiaren barruko aldea, eta iragarki-ohola barruan dago.

Eskabidearekin batera grabazioak ikusi eta gero, fitxategiaren arduradunak egindako txostena era helarazi ziguten.

Kontsulta egin duen administrazioak honako galderak egin zizkigun:

"1.- Ea grabazioak zaintzeaz eta gordetzeaz arduratzen denaren zuhurtzia egokia den ala ez, eta ez bada, mesedez, bere jarduera berbideratzeko eskatzea.

2.- Ea eskatzaileak eskatutako guztia eskuratzeko eskubidea duen ala ez, gerta daitekeelako eskatzailea ez agertzea grabazioetan, nahiz eta berak pentsatu anonimo horren edukiak kalte egin diola.

3.- Ea espedientearen instruktoreak grabazioen edukia ikus dezakeen edo kopia bat eskuratu dezakeen, gertatutakoa argitzen saiatzeko".

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak xedatzen duenez, erakunde honen eginkizuna da honako hau:

"n) Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea."



Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Udalaren galderei erantzun aurretik, lehenengo eta behin komeni da hainbat gogoeta orokor egitea, galderak ondo kokatzeko datuak babesteko oinarrizko eskubidearen esparruan.

Hasteko atzipen eskubidea aipatuko dugu. Eskubidea bi lege hauetan dago araututa: Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 15. artikulua (aurrerantzean DBLO) eta DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 27-30 artikulua (aurrerantzean Erregelamendua). Eta atzipen eskubideak dio interesdun orok duela bereak diren eta tratatu egin dituzten datu pertsonalei buruzko informazioa doan eskatzeko eta eskuratzeko eskubidea, bai eta datuen jatorria zein den jakiteko eta datuekin zein jakinarazpen egin diren eta egitea aurreikusten diren jakiteko ere.

Atzipen eskubidea eskubide guztiz pertsonala da eta norbere datuak kontrolatzean datza; bestelako lege bereziek aitortzen dituzten eskubideekiko independentea da; esate baterako ez du zer ikusirik Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearekin. Hala dela dio Erregelamenduaren 27.3 artikulua.

Aztartzen ari garen kasuan esan behar dugu ez dutela eskatu DBLOren atzipen eskubidea betetzeko, DBLOren 3 i) artikuluko datu komunikazio bat egiteko baizik, eta hori beste kontu bat da; izan ere, DBLOren 3i) artikulua definizioak dioenez, hori egitea datu pertsonalak lagatzea da: "interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea".

Datu lagatzeen eta datu komunikazioen gaineko araudia erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago xedatuta, eta hona lehenengo idatz-zatiak dioena: *"Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da"*.

Hala ere, arau orokor horrek hainbat salbuespen ditu, 11. artikuluko 2. idatz-zatiak dioenez. 11.2 artikuluan jasotako salbuespenetatik, kasu honetan azpimarratzea merezi diguna da a) idatz-zatiak aipatzen duena: *Lege batek baimentzen badu lagapena"*.

Eta 30/1992 Legearen bidez (35. eta 37. artikulua) norberaren datuaz atzitez gain, hirugarrenenak ere atzitu daitezke.

Antzeko kontsulta batzuetan ere esan dugunez, Konstituzioaren 105 b) artikulutik datorren honako eskubide hau, hau da, artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidea kontrolatzea eta babestea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, ikusi bestela zer esan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2009ko uztailaren 8ko



epaian: *"Demanda egileak azaldutako portaerak ez du zer ikusirik datu babeserako oinarritzko eskubidearekin, 30/1992 Legearen 35a) artikuluan edo 37.2 artikuluan araututako artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidearekin baizik. Hau da, prozedura jakin batean dagoen dokumentazioa eskuratzeari buruz ari da demanda-egilea, eta hori Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumenetik kanpo dago."*

Hala ere, eta udal gobernuaren eginkizunetan esku hartzerik egin gabe, gure asmoa da ohartaraztea bakar-bakarrik tratamenduaren helburuarekin zer ikusia duten datuak atzitu daitezkeela, eta espedientean dauden gainontzeko datuak ezin direla atzitu.

Azken finean, datu horiek lagatzeko, DBLOren finkatutako printzipioak bete behar dira, batez ere 4. artikuluan ezarritakoak. DBLOren 4.1 artikulua proportzionaltasunaren printzipioari buruzkoa da eta zera dio: *"Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko"*.

Beraz, horren arabera, grabazioaren helburua zein den ikusi, eta horretarako baino ezingo da erabili; eta udaltzain-buruaren txostenak dioenez, grabazioaren helburua da "udaltzaingoaren bulegoetako zerbitzu-sarbidearen zaintza eta segurtasuna". Hori dela eta, diziplina-erantzukizunak udaltzaingoaren bulegoetako zerbitzuan egindako sarbideen ondorio badira, orduan erabili egin ahal izango da; baina ezin izango da erabili deklaratura ez dauden beste helburu batzuetarako.

Azken finean, kamerek ez badute iragarki-ohola grabatzen, grabazioa ikustea alferrik da, ezin delako ikusi nork jarri zuen iragarkia; eta, halakoetan, tratamendua gehiegizkoa izango zen.

Azkenik, galdetu dute ea espedientearen instruktoreak grabazioen edukia ikus dezakeen edo kopia bat eskuratu, gertatutakoa argitzen saiatzeko.

Dirudienez, ez da espedienterik hasi eta momentuz gertatukoari buruzko informazio-eginbideak hasi dituzte. Horren gainean esan behar dugu Agentziak ez duela gai horren gainera eskumenik eta ezin duela baloratu diziplina prozedura batean zein proba aurkez daitezkeen eta zein ez.

ONDORIOA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez du eskumenik ebazteko ea Udaltzaingoaren eraikinaren barruko aldean dagoen bideo-zaintza sistemaren grabazioak atzitzeko eskubidea zilegi den ala ez; izan ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritako araudia eta DBLOren 4.1 artikuluan finkatutako datuen kalitatearen printzipioa kontuan hartuta ebatzi behar baita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 12a